




## ZINEBI 51k Jeanne Moreauri emango dio Ohorezko Mikeldia, René Vautier zinegileari omenaldia egingo dio eta Kyle Eastwooden kontzertu batekin amaituko da

- Laurogeita lau pelikula, ia hiru mila aurkeztutakoen artean, Atal Ofizialean izango dira lehian, haien artean sei ekoizpen euskaldun.
- Jeanne Moreau ziklo baten protagonista izango da ere: GURE BIZITZAREN EMAKUMEA. JEANNE MOREAUri OMENALDIA.
- *AFRICAN FRAMES. ARGI ETA ITZALEKO 65 URTE (1944-2009)* zikloak Afrikako zineman ezagunak ez diren alderdiak eskainiko ditu. Besteen artean, René Vautierren, zinegile frantziarraren, film batzuk proiektatuko dira. Vautierrek bere bizitza desberdintasunen aurka eta giza eskubideen alde borrokatzera dedikatu du.
- Kyle Eastwood jazz musikariak kontzertu bat eskainiko du azaroaren 28an, larunbata, Arriaga Antzokian gaueko 20.00etan. Eastwoodek bere aitaren, Clint Eastwood aktore eta zuzendaria, film famatuaren soinu-bandak eta jatorrizko abestiak konposatu ditu.

Bilbo, 2009ko azaroaren 16a. Joan den urtean bere berrogeita hamar urteurrena ospatu ondoren **Bilboko Zine Dokumental eta Laburmetraia Nazioarteko Zinemaldiak, ZINEBI**, bere 51. edizioa ospatzen du aurten. René Vautier zinemagile frantziarrari omenaldiarekin irekiko da aurtengo Zinemaldia hurrengo astelehenean, azaroak 23, eta, Jeanne Moreauri, aktore famatuari, Ohorezko Mikeldia ematearekin bukatuko da larunbatean 28an. 60. hamarkadaren emakume-ikur hau Arriagaren eszenatokira igo baino lehen, Zinemaldiak proiektzio mota ugariarekin gozatzeko aukera emango digu. Bere Sail Ofiziala osatzen dutenetik joan den mendearen berrogeigarren hamarkadan filmaturiko ia ezezagunak diren Espainiako Administrazio kolonialaren irudietaraino.

Guztia Barre egin, maitea. umorea zine feministan/ garaikideko queer eta Soft fiction. emakumezkoen desirak eta sexu fantasiei buruzko narratiben eraikuntza zikloetan emakumeak protagonistak izango diren aste bizi batean. Afrikako kontinenteak tarte berezia hartuko du *African frames*. Argi eta itzalen hirurogeita bost urte (1944-2009) zikloan) eta Euskadiko Filmategiak aurten ere pelikula zaharberrituta bat ekarriko digu, Antton Merikaetxebarriaren *Ikuska 3 Bilbao*.

ZINEBIk, bestalde, bere ikus-entzunezko sektorearen garapenaren apustua mantentzen du. Film laburren eta dokumentalen jaialdi bat da, mugimenduko irudien





ekoizpeneko alorra, nahiz eta izar handietatik, alfonbra gorrietatik eta industria handiaren sustapen kanpainekin batera joan ohi diren oparotasunetatik oso urrun kokatzen dena duen izaeragatik. Trukean, gure jaialdiak mundu osoko errealizadore

gazteen lehenengo lanak ikusteko aukera ematen die bilbotarrei urtero, hain zuzen ere benetan behar besteko prestakuntza duten profesionalak diren eta zinemagintzan prestatzen dabiltzan gazteenak. Askatasun osoz lan egiten duten artistak dira, kemen handiko esperimendu formalak egiteari beldurrik ez diotenak. Horrek, kasu askotan, nolabaiteko izaera aurreratzailerak edukiko du etorkizunean egingo duten zinemari dagokionez. ZINEBILAB zikloa, aurten digitalizazioaren munduan aurrekontu txikia duten irudi-produkzioari eskainita, apustu honen froga da. Zikloan Chris Jonesek, *The Guerrilla Filmmakers Handbook* egile eta editorea, beste batzuen artean, hartuko du parte.



Bere ezaugarriak festibalen artean *Federación Internacional de Asociaciones de*

*Productores de Films* (F.I.A.P.F) federazioak aitortzen duen bakarra izaten jarraitzen du Bilboko Zine Dokumental eta Film Laburren Nazioarteko Zinemaldiak, oraindik ere. ZINEBIREN lan irabazleak, gainera, Hollywoodeko Akademiako Oskar Sarietako fikzio, animazio eta dokumental sailetan lehiatzeko hautatuak izaten dira zuzenean. Bilboko jaialdia da mundu mailan oskarretarako zuzeneko hautaketa hau duen festibal bakarrenetakoa.

la hiru mila filmek - **-2.965-** eman dute izena ZINEBIren 51.edizio honetan, eta horietatik guztietatik 84 aukeratu ditu Hautaketa Batzordeak. 84 film ibiliko dira, beraz, festibalaren Mikeldietako bat lortzeko lehian. Honako sari hauek osatzen dute ZINEBIren palmaresa: Bilboko Zinemaldiko Sari Nagusia, Euskal Zinearen Sari Nagusia, Espainiako Zinearen Sari Nagusia, Urrezko eta Zilarrezko Mikeldiak fikzio, animazio eta dokumental sailetan, Amerika Latinoko film onenarentzat Zilarrezko Karabela eta Ohorezko Mikeldia.

Beste lau sari ere baditu festibalak: Publikoaren EITB Saria, Euskal Gidoi Onenarentzat Saria, SGAEn eta Euskal Herriko Gidoilarien Elkarte Profesionalaren eskutik, FIPCA – EGEDA Saria Iberoamerikako lanik onenarentzat eta ZINEKLUB FAS Saria.

Nazioarteko Epaimaia batek banatu eta emango ditu sariok. Aurtengo kideak hurrengoak izango dira: Peggy Ahwesh, zinemagile independente estatubatuarra, Antje Ehmann, Alemaniako historialari eta teorialaria, Loreta de Stasio, Italiako semiologo eta irakaslea, Dario Urzay euskal margolaria eta zinemagile gazte espainiarra Carlos Serrano.



## ARRIAGA ANTZOKIA

Arriaga Antzokia aurten ere izango da Bilboko Zine Dokumental eta Laburmetraien Nazioarteko Zinemaldiaren, ZINEBIren, egoitza nagusia. Bertan ospatuko dira ZINEBIren inaugurazioa eta klausura, baita Atal Ofizialaren proiektzioak ere.

Arriaga Antzokian Atal Ofizialetik kanpo beste proiektzioak egongo dira, adibidez Infospain eta Infoeuskadi zikloak-atal ofizialean ez dauden laburmetrai espainiarrak eta euskaldunak-, Zineskola- haurrentzako goizeko ekitaldiak-, eta *Bilboko oroitzapenak*. *Antton Merikaetxebarriaren lekukotasuna* bezalako proiektzio bereziak. ZINEBI 51. edizioaren gozatzeko beste egoitzak Guggenheim Museoaren Auditorioa, Arte Ederretako Museoaren Auditorioa, Bilborock edo Barrainkua Udaltegia.

## Zinema ikasleen deskontua

Proiektzioak ikusteko abonamenduak badaude salgai Arriaga Antzokiaren leihatilatan. Euren prezioa 30 €. Horren truke ziklo guztien proiektzioak ikusi ahal izango dira. Aurten lehengo aldiz Claro de Luna, IMVAL y KINEMA Bilboko Zinema Eskolen ikasleek, EHUren Gizarte eta Komunizazio Fakultatearen eta Arte Ederren Fakultatearenak eta Erandio-Tartanga GLBHak 15 eurotako deskontua izango dute abonamenduan. Emanaldi bakoitzeko sarreraren prezioa 3€koa izango da (1,5€koa ikasleentzat eta jubilatuentzat) eta egoitza bakoitzean eros ahal izango dira.

## ATAL OFIZIALA / NAIOARTEKO LEHIAKETA

Emanaldien tokia: Arriaga Antzokia

Egunak eta orduak:

**Azaroak 23: 20:00 horas**

**Azaroak 24: 17:30 eta 20:00**

**Azaroak 25: 17:30 eta 20:00**

**Azaroak 26: 17:30 eta 20:00**

**Azaroak 27: 17:30, 20:00 eta y 22:30**

**Azaroak 28: 22: 30: PALMARESAREN PROIEKZIOA**

**Azaroak 29: 18:00: PALMARESAREN PROIEKZIOA**

ZINEBI 51n 2.965 film izango dira, iaz baino 116 gehiago, 86 herrialdetatik datoz, 2008an baino 1 gehiago, eta horietatik Hautatze Batzordeak 84 proposatu ditu, iaz baino lau gehiago, 38 herrialde ordezkatzuz, 2008an baino 12 gehiago, Nazioarteko Lehiaketan parte hartzeko. Gehienek estreinaldia dute Espainian. Horietatik 19 espainiarrak dira eta 6 euskaldunak.

**Euskal Zinema atalean lehiaketarako ondorengoak hautatu dituzte:**

**-5 recuerdos, Oriana Alcalde eta Alejandra Márquezena (fikzioa).**

**-Arena, Jota Aronakena (fikzioa).**

**-Los que lloran solos, David Gonzálezena (fikzioa).**

**-El cheff, Íñigo Kintanarena (fikzioa).**

**-Zortzi/Bederatzi Lisabö, Víctor Iriarterena (dokumentala).**

**-Tener el corazón en el lugar equivocado, Josu Venerorena (dokumentala).**



Espainiako Zinema atalean, aipatutakoez gain, ondorengoak daude:

- Chupertópico*, Pablo Álvarezena (fikzioa).
- Las manos de Abel*, Víctor Bárcenarena (fikzioa).
- Rumbo a peor*, Álex Brendemühl-ena (fikzioa).
- Metrópolis ferry*, Juan Gautier-ena (fikzioa).
- Dolce di limbo*, Arantzazu Gómezena (fikzioa).
- Together*, Gigi Romerorena (fikzioa).
- Johannes*, Graciela de Torresena (fikzioa).
- Immersió*, Neus Ballúsena (dokumentala).
- La sesión de maquillaje*, Covadonga J. Icazarena (dokumentala).
- Notes on the Other*, Sergio Oksman-ena (dokumentala).
- Diario (Vitoria-Gasteiz)*, Gonzalo de Pedrorena (dokumentala).
- My Name Is Maria*, Elio Quirogarena (animazioa).
- The Lady and the Reaper*, Javier Reciorena (animazioa).

Lehiaketarako hautatu diren 84 filmak kontuan izanik, Zinemaldiko araudian ezarritakoa jarraituz maila desberdinen arabera (fikzioa, dokumentala, animazioa), 43 fikziokoak dira, 19 dokumentalak eta 22 animaziokoak. Geografiari dagokionez, euskal eta espainiar filmak alde batera utzita, berriz ere hainbat herrialde nagusitzen dira parte-hartze kopuruari begira: Amerikako Estatu Batuak (8), Frantzia (7), Britainia Handia (6), Belgika (4), Suedia (4) eta Hungaria (3). Amerika Latinari dagokionez, honek ere euskaldunen eta espainiarren antzera Sari berezia du, aurten, Argentina, Brasil, Chile, Kolonia, Kuba, Mexiko, Paraguay (lehen aldiz) eta Peru nabarmentzen dira. Nazioarteko Lehiaketan parte hartzen dute, baita ere, orain arte ZINEBI oso gutxitan izan diren herrialdeak, hala nola, Bangladesh, Georgia, Letonia, Luxenburgo, Senegal, Tunez, Turkia eta Zimbabue. Hainbeste herrialde eta hain toki eta kultura desberdinetakoak izatean Zinemaldi beterano honek duen nazioarteko kutsua ziurtatuta dago.

### **INFOSPAIN**

**Emanaldien tokia: Arriaga Antzokia**

**Eguna: azaroak 25**

**Ordua: 22.30**

Espainiako fikzioko, dokumental eta animazioko film laburren ikuspegia da, Lehiaketaren Atal Ofizialean ez daudenak. Aurten atal honetan fikzioko 10 film daude, 3 dokumental eta animaziokoak beste hiru dira.

### **INFOEUSKADI**

**Emanaldien tokia: Arriaga Antzokia**

**Eguna: azaroak 26**

**Ordua: 22:30**

Lehiaketatik kanpo, Atal Ofizialean sartzen ez diren 18 produkzio euskaldun daude, 11 fikziokoak eta 7 dokumental.



### **BARRE EGIZU MAITEA. UMOREA ZINE FEMINISTAR/QUEER GARAIKIDEAN**

**Emanaldien tokia: Guggenheim Museoaren Auditorioa**

**Días y horas: 24 20.00 orduetan; 25 20.00 orduetan; 27 18.00 orduetan**

Kaucyla Brooke, Jane Cottis, Sadie Benning, A.S.M. Kobayashi eta Kalup Linzy Ipar Ameriketako eta Kanadako emakume errealizataileek talde heterogeneoa osatzen dute eta euren lana zinema esperimentalaren arloan garatzen da aspalditik. Emakume hauen azken lanek ziklo hau osatzen dute, generoak nahasten dituzte, fikzioa, dokumentalak eta filmatutako *performanceak*. Ikus-entzunezko hauek elkarren artean duten lotura barrea da, guztietan barrea euskarri gisa azaltzen baita kritika sakona egiteko eta helburua *genero normaltasuna* deiturikoa zalantzan jartzea da, queer teoriaren eta feminista postmodernoen diskurtsoaren elementu nagusia bihurtuz.

Ziklo honen barruan, bereziki, **Peggy Ahwesh** lanaren atzera begirakoa aurkeztuko da. 51. edizio honetako Nazioarteko

Epaimahaikidea da eta zinematografia-praktika honetan aitzindaria ere bai. Bere lana oso ondo definitu izan dute *bricoleur* batena bailitzan eta teknologia asko erabiltzeko inolako arazorik ez du, zaharkituta daudenak eta arte digitalarekin lotutakoak erabiltzen baititu. Aurreko mendeko 70eko hamarkadan burutu zituen artista ikasketak New Yorkeko giroko

Super8 zinema esperimentalaren inguruan, abangoardiako mugimendu feministen inguruan eta *underground punk* delakoaren inguruan. Orduz geroztik umorea eta absurdoaren bere poetika berezia erabiltzen ditu analisiak egiteko, gai sozial eta politikoko irudi eta soinuen bitartez, kultura-identitate eta genero arazoak aztertuz, eta horiekin lotuta dauden esperientzia subjektibo indibidualak erakutsiz. Atzera begirako honek bere ibilbide luzean dituen titulurik adierazgarrienak eskainiko ditu, nabarmenenak hauek: *Philosophy in the Bedroom* (1987), *Martina's Playhouse* (1989), *She Puppet* (2001) eta *Certain Women* (2005).



### **SOFT FICTION. EMAKUMEEN DESIO ETA SEXU FANTASIEI BURUZKO NARRAZIOEN ERAIKUNTZA**

**Egunak, Tokia eta Orduak: 24 Arte Ederren Museoa 20.00; 25 Bilborock 20.00; 26 Arte Ederren Museoa 20.00**

Virginia Villaplanak, multimediar artista eta ikus-entzunezkoetan aditua, eta *consonni* elkarteak, *Soft Fiction* proiektua aurkeztzen dute ZINEBIren 51. edizio honetan. Diziplina antzeko proposamena da, fikzioa eta dokumentu kontzeptuaren artean garatzen da, 1979an Chick Strand zinemagile iparramerikarrak egindako izen bereko filma oinarri hartuz. *Soft fiction* proiektuak emakumezko fantasia erotikoa eta sexualen inguruko klise narratibo eta irudi asko erakusten ditu hainbat bide artistiko erabiliz, bai irudiak berak,



baita genero-narratibek azpimarratzen dituzten bitartekoak erabiliz: ikus-entzunezko teknologia, zinema nobela musika, saiakera esperimental eta abar. Proiektu honetan tailerrak egingo dira, eztabaidak antolatuko dira, emanaldiak kalean eta *performanceak*.

Aipatutako filmaz gain beste film hauek ikus ahal izango dira: *Boy Meets Girl* (Eugenia Balcells, Espainia, 1978), *Mujer trama* (Virginia Villaplana, Espainia, 1997), *Sink or Swin* (Su Friedrich, AEB., 1990) eta *November* (Hito Steyerl, Alemania, 2004). Atal honetan aire zabaleko film emanaldiak ere egingo dira, Alde Zaharreko Torre eta Pelota kaleen artean, eta hau burutzeko inguruko ostalaritza-establezimenduek lagundu egin dute.

### **AFRICAN FRAMES. ARGI ETA ITZALEKO 65 URTE (1944-2009)**

**Emanaldien lekua: Arte Ederren Museoaren auditorio aeta San Frantzisko Udaltegia**

**Egunak eta orduak: 24 Arte Ederren Museoa 18.00 horas; 24 San Frantzisko Udaltegia 19.30 horas; 25 Arte Ederren Museoa 18.00 horas eta 20.00 horas San Frantzisko Udaltegia 19:30 horas; 26 Arte Ederren Museoa 18.00 eta San Frantzisko Udaltegia 19.30; 27 San Frantzisko Udaltegia 19.30; 28 Arte Ederren Museoa 18.00 eta 20.00.**

Frantziako Enbaxadak Espainian duen Kultur Agregatutzaren laguntzarekin, *Kalao arte negro*, Afrikako arte garaikidean espezializatuta dagoen bilbotar galeriaren laguntzarekin, Tarifako Afrikako Zinemaldiaren laguntzarekin (FCAT) eta Panafricain de Cinéma et de la Télévision de Ouagadougou Zinemaldiaren (FESPACO) eta We Are Here! Films produktorearen laguntzarekin, Afrikako zineman ezagunak ez diren alderdien ikuspuntu berezia ikusiko dugu. Erakusketa honetan hainbat gauza ikusiko dugu: Senegaleko film laburren



egile gazteen produkzio berriena (Douts Ndoye, Piniang, Diana Gaye edo Abdoul Aziz Cissé, esaterako), Jean Rouch eta René Vautier-en filmerik adierazgarrienak (kontinente osoko kolonialismoaren aurkako zinemaren eta zinema etnografikoaren bi aitzindari ezagunak), ia ezezagunak diren irudi batzuk Ekuatore Ginean Espainiak zuen kolonia-administrazioarenak, aurreko mendeko 40ko hamarkadan Manuel Hernández Sanjuánek filmatutakoak, aipatutako FCAT eta FESPACO zinemaldietan 2008ko sari-banaketan izandakoak eta *Africalls*, film luze dokumentala, Pere Ortín eta Vic Pereiró, Kataluniako errealizatzaile gazteek egindako film luze dokumentala, Afrikako hiri handietan sormen artistiko garaikidearen inguruan egindakoa.

Ziklo honekin Bilbora **René Vautier** (Camaret, Britainia, 1928) etorriko da, 51. edizio honetara, gonbidatu gisa. Frantziako zinemagile ospetsu honek bere bizitza eta lanbidea askatasunaren aldeko borroka bihurtu ditu, bereziki adierazpen askatasunaren aldeko borroka. Askoren ustez Frantzia osoko gizonik zentsuratuen da



eta jadanik 16 urte zituela nazien aurkako erresistentzian parte hartu zuen, Afrikan filmatu zuen 1950ean gaur egun kolonialismoarena urkako lehen filma dela uste dena, bere herrialdean langileen aldarrikapenen irudiak hartu zituen, Aljeriako independentzia nazionalaren aldeko borrokan parte hartu zuen eta betidanik bere *filmmeur* lanbidea halako gaietara eskaini izan die: Hego Afrikako *apartheida*, arrazismoa eta muturreko eskuina Frantzian, ingurumenaren kutsadura eta emakumeen eta euren eskubideen alde. Benetako ekintza-gizon honen lan guztien artean hiru lan nagusi ikus ahal izango ditugu: bere klasikoa eta aitzindaria den *Afrique 50* (1950), *Peuple en marche* (1963) eta *Avoir 20 ans dans les Aurès* (1972). *René Vautier, l'indomptable* ere ikusiko dugu, 1996an Jacques Royer-ek Canal + katearentzat bere bizitzaren eta zinema ulertzeko moduaren inguruan egindako dokumentala.

### **NAZIOARTEKO EPAIMAHAIKIDEEI OMENALDIA**

**Eguna tokia eta ordua: 27 Arte Ederren Museoa 18.00 horas; 28 Guggenheim Museoa 18.00**

ZINEBIren 51. edizioko Nazioarteko Epaimahaiaren ondorengoak daude: Peggy Ahwesh, Ipar Ameriketako zinema esperimentalaren errealizatzaile ezaguna; Antje Ehmann, Alemaniako zinemaren historiagile eta teorikoa; Loreta de Stasio, Italiako semiologo eta irakaslea; Darío Urzay, euskal pintorea eta Carlos Serrano, Espainiako zinemagile gaztea. Aipatu dugun Peggy Ahweshen lanaren atzera begirakoaz gain *El árbol* (2008) ikus ahal izango dugu, Carlos Serranok zuzendutako lehen film luzea. Film honek parte hartu du jadanik 2009ko Donostiako Zinemaldian *Horizontes Latinos* atalean eta baita Rotterdameko Nazioarteko Zinemaldian ere. Sei film labur zuzendu eta horien gidoiak idatzi ditu eta "JAPÓN" (Carlos Reygadas, Mexiko- Espainia 2002) filma muntatu eta koproduzitu du. Film honek 2003an Canneseko zinemaldian Urrezko Kamera Saria irabazi zuen eta orain Cristóbal Jodorowskyren lan terapeutikoaren inguruan film-dokumental luzea zuzentzen eta produzitzen ari da.

### **GURE BIZITZAKO EMAKUMEA. JEANNE MOREAURI OMENALDIA**

**Emanaldien tokia: Guggenheim Museoaren Auditorioa**

**Egunak eta orduak: 24 18.00; 27 20.00 orduak eta 28 20.00 orduak**

Jeanne Moreau Frantziako aktore ospetsua izateaz gain mundu osoan eta zinema arloan eta Europako antzerkigintzan aurpegi eta ahots ezagunenetakoa da. Zinemaldiaren 51. edizio honetan Ohorezko Mikeldia jasoko du bere ibilbidea eta zinema garaikidearen eboluzioan egindako ekarpenak gogoratuz. Karrera luze eta biziaren ondoren –oraindik ere indar handiz jarraitzen duen karrera-, Buñuel, Antonioni, Truffaut, Malle edo Fassbinder bezalakoekin lan eginez, gure hirira etorriko den aitzakiaz bere atzera begirakoa izango da programazioan. Berak hautatu ditu filmak eta azkenaldian egindako film ezezagun batzuk ikus ahal izango dira, baita bere lanaren inguruko dokumentala ere: *Le Temps qui reste* (François Ozon, Frantzia, 2005), *Château en Suède* (Josée Dayan, Belgika, 2008), *Plus tard tu comprendras* (Amos Gitai, Frantzia/Alemania/Israel, 2008) eta *Jeanne M.-Côté cour, côté coeur* (Pierre-André Boutan/Annie Chevally/Josée Dayan, Frantzia 2008).

### **Ex IS. IRUDI ETA SOINUZKO ESPERIMENTALA**

**Emanaldien tokia: Zabalguneko Eraikina**

**Egunak eta orduak: 24 y 25 20.00 orduetan**



Diziplina anitzeko ikus-entzunezkoetan eta esperimentaletan egin diren azken produkzioen erakusketa handia izango da, Euskal Herrian egin diren azken errealizazioei atentzio berezia eskainiz. Lan hauek euren artean oso desberdinak diren errealizatzaile gazteek egin dituzte eta elkarren artean antza badute jakin-min artistikoa dutelako eta irudien eraikuntzaren eta ikus-entzunezko giroen inguruan dituzten ideiekin konpromisoa dutelako da. Aurten Ex IS atalak lau programa aurkeztuko ditu eta helburua hainbat errealizatzailearen lanak duen originaltasun eta esanahi sakona ezagutaraztea da. Errealizatzaile hauek euren lanari taldearen dimentsioa eta erabilgarritasuna eransten diote. Errealitatean sakontzeko modu bat da, alderdirik ezezagunenak agerian uzteko, testuingurutik ateratzeko eta gako berriak erabiliz errealitatea berriz interpretatzeko.

Erakusketa honetan hainbat errealizatzailearen proposamenak daude: Felipe F. Gil, Joan Carles Martorell, Sally Gutiérrez, La Fiambrera, Estibaliz Sádaba, Elsie Ansareo & Eduardo Sourrouille eta Ramón Churruca, besteak beste.

### **BILBOKO OROITZAPENAK. ANTON MERIKAETXEBARRIaren LEKUKOTASUNA**

**Emanaldien tokia: Arriaga Antzokia**

**Eguna eta ordua: 23 20.00**

Azken edizioetan ohikoa den bezala, **Filmoteca Vasca-Euskadiko Filmategiak** Euskal Herriko eta Bilboko ondare historikoarenak diren filmazio eta filmak aurkeztuko ditu. 1979an produzitu zenez, eta 30. urteurrena ospatzeko, ZINEBI 51k aurten *Ikuska 3 Bilbao* dokumental-film laburra emango du. Urte hartan bertan Donostiako Zinemaldian Urrezko Maskorra irabazi zuen eta aldi berean errealizatzaileari omenaldia egingo zaio, Anton Merikaetxebarriari hain zuzen, orain El Correo egunkariak zinema-kritikari lana egiten ari den berberari. Orain dela urte asko eta Guggenheim Museotik eta gaur egun Bilboko irudia osatzen duten eraikin adierazgarrietatik urrun, *Ikuska 3* dena agerian uzten duen erretratua da, irudien bitartez osatutako lekukotza zirrargarria, amaierarik ikusten ez zitzaion trantsizio politiko batean galduta, auzokoen aldarrikapenez inguratuta, kutsaduraz beteta eta industriaren gainbehera erakutsiz.

### **ZINEBILAB**

**Eguna Tokia eta ordua: 25 Arte Ederren Museoa 10:00 orduetan, Arriaga Antzokian 16:00 orduetan; 26 Arte Ederren Museoa 10.00 orduetan**

ZINEBI 51k, bederatzigarren urtez jarraian, ZINEBILAB antolatu du. ZINEBILAB, prestakuntzari eskainitako tailer-mintegia da, ikasleentzat, errealizatzaile gazteentzat eta ikus-entzunezkoetan adituak direnentzat antolatzen du Euskal Produktoreen Elkartearekin (EPE-APV), Media Antena Euskal Herriaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU-UPV) laguntzaz. Digitalizazioaren munduan aurrekontu txikia duten irudi-produkzioari eskainita dago, monografikoki.

**Horretarako errealizazio mota honetan esperientzia duten hainbat profesionalen laguntza izango dugu:** Alberto Rodríguez, Espainiako zinemagile honen lan interesgarrien artean daude *Factor Pilgrim* (2000), *El traje* (2002), *7 vírgenes* (2005)



filmak eta bere azken lana, konplexua eta kezka sortzen duena, *After* (2009), eta parte-hartzaileei azalduko die nola egin zituen lehen film laburrak eta nola hasi zen film luzeak egiten.

Chris Jones errealizatzailer britainiarak *The Guerrilla Filmmakers Handbook* egin eta editatu ondoren izandako esperientzia kontatuko digu, mundu osoko errealizatzailer independenteen artean erreferentzia eta oinarri bihurtu den argitalpena da, 90eko hamarkadan azaldu zenetik.

Freida Lee Mock Ipar Amerikako zuzendari eta produktorea, *Maya Lin: A Strong Vision* (1994) dokumentalari esker Oscar Saria irabazi zuena, beste batzuetan ere sari hori jasotzeko hautatua eta orain Akademiako kide dena, gainera urtero estatua txiki hori irabazteko lehian aritzen direnen artean film laburrak aukeratzen ditu beste arduradunekin batera, eta hautatze-lana hau nola egiten den eta zein arau eta irizpide erabiltzen dituzten azalduko du, eta ZINEBIKO saridunak, hain zuzen ere, zinemaldi laguntzaile gisa parte hartzen dute. Oscar Sarien ordezkari honekin batera Ipar Ameriketako beste bati zango dugu, Jessica Sanders, produktore eta zuzendari gazte hau ere Oscar Saria jasotzeko hautagaia izan zen 2002an *Sing!* dokumental-film laburra produzitzeagatik eta 2005ean Sundanceko Zinemaldian Epaimahaiaren Sari Berezia jaso zuen *After Innocence* dokumentalari esker.

Era berean, ZINEBILABen KIWI MEDIA banaketa-plataformaren aurkezpena egingo da. Plataforma hau telefono mugikorren pantailentzako telebista-kanal sorta handiaren sortzailea da eta euskarri mota honetarako kanal-operatzaile garrantzitsuenetako bihurtu da European. Ondorioz, ikus-entzunezko programazioaren azken joeretan nagusi izan da komunikazio globalak dituen bitarteko berri horietan. Praktika-tailerrari dagokionean, Gaizka Bourgeaud argazki-zuzendari euskaldun gazteak parte-hartzaileen praktikak zuzenduko ditu, Canon etxeak argazkigintza eta bideogintza digitalaren merkatuan atera duen gailu berriekin. 2008ko amaieran atera zuten, *Canon EOS 5D Mark II* izena jarri zioten eta epe laburrean mundu osoko errealizatzailer berriek (eta hain berriak ez direnek) gehien erabiltzen duten lan-tresna bihurtu da, nahiz eta emaitzak polemikoak izan. Tailer honetan produzitutako irudiak ikusi eta aztertu ahal izango dira ZINEBIren 51. edizioan.

## **ZINESKOLA**

**Emanaldien tokia: Arriaga Antzokian**

**Egunak eta orduak: 24, 25 eta 26 10.00etan**

Arriaga Antzokian emanaldiak izango dira goizez eta gure hiriko ikastetxeetako hurrek haurrentzat egin diren produkzio nazional eta nazioarteko berrienak gozatzeko aukera izango dute. Film hauetako istorioek ikasleak eta irakasleak ere erakartzen dituztenez ikasgeletan egiten diren baloreen hezkuntzari begira baliabide interesgarriak eskaintzen dituzte.

51. edizio honetan ondorengo lanakikus ahal izango ditugu: *Winkyren zaldi magikoa* (Mischa Kamp, Holanda 2007. Fikzioa, 95'), *Up* (Pete Docter/Bob Peterson, AEB., 2009. Animazioa, 95') eta *Ponyo* (Hayao Miyazaki, Japonia, 2008. Animazioa. 100').



### **PROIEKZIO BEREZIAK**

**Eguna tokia eta ordua: 26 Guggenheim Museoa 20.00etan; 27 Arte Ederren Museoa 20.00etan**

ZINEBI 51ren atal honetan lau proposamen interesgarri daude, asmo eta esanahi desberdinekoak. Hiru berriki produzitutako euskal dokumentalak dira: lehenengoa *El largo viaje* izeneko luzera erdiko filma da, 2008an Basque Films Bilboko produkzio-etxeak egin du Sabin Egiliorrek zuzendu du, gure memoria historikoa berreskuratzeko ariketa zorrotza egiten du eta 1937an Bibotik Sevillara zihoan trenak egindako ibilbide berezia erakusten digu, errepublikako presoz beteta zegoen eta inoiz ez zen helmugara iritsi.

Bigarrena *Días de El Abanico* da, dokumental-film luzea Arabako Kinoskopik Film Produktion produkzio-etxeak egindakoa, 2008an Miguel Ángel Jiménezek zuzendu zuen, denbora zinematografikoa eder eta ongi landuz Argentinan Andeetako mendiak baino lehen herri txiki batean nola bizitzen diren erakutsiz, eta bertako biztanleen aurpegiak ere erakusten ditu.

*Glocal*, izenburu generikoa erabiliz Nico Vázquezek (MCD rock-taldeko baxua izandakoa) eta Eva Mateosek, biak ere profesionalki *Aburres Team* izenez ezagutzen direnek atal honetako hirugarren programan ikus-entzunezko azken lanak aurkezten dituzte, 2007eta 2009 bitartean egindakoak eta hainbat sari eta aipamen jaso dituztenak lehiaketetan eta bideo-sorkuntzarekin lotutako erakusketetan. Asmo esperimentala duten lanak dira eta gaur egungo munduaren oinarrizko alderdiez aritzen dira, hala nola, errealitate birtuala, (in)komunikazio modu berriak, arkitektura eta aldaketa klimatikoa, eta baita grina sortzen duten alderdiez ere, guztiona eta norberarena, moto-lasterketak esaterako.

Laugarrena oso bestelakoa da. Dokumental-film luzea da hau ere, *Wake up World*, Carlo Nerok zuzendutakoa eta bere ama ospetsuak, **Vanessa Redgrave** britainiar aktore ezagunak 2007an produzitu zuen, UNICEF-en 60. urteurrena aitzakia hartuta eta munduko haurren eta euren eskubideen alde lan eginez. Vanessa Redgravek elkarrizketak egiten ditu Koffi Annan NBEkoa aurreko Idazkari Nagusiarekin, eta erakunde beterrano honek dituen borondate oneko enbaxadore batzuekin ere bai, hala nola, Ralph Fiennes, Angelique Kidjo eta Liam Neeson.

### **KYLE EASTWOOD, MUSIKA ETA ZINEMA**

**Kontzertuaren tokia: Arriaga Antzokia**

**Día y hora: 28, 22.30etan**

Bilbao 700 Fundazioak antolatuta, ZINEBIko 51. edizioaren programazioaren barruan Kyle Eastwood-en kontzertu bat izango da. Nazioartean izen handia duen jazz-musikari honek bilbotarrei bere lanik ezagunenak eskainiko dizkio, eta horien artean izango dira bere aitak, Clint Eastwood zuzendari ezagunak, egindako lan bikain batzuetarako konposatutako musika-banda eta kantu originalak: *Letters from Iwo Jima* (2006) eta *Gran Torino* (2008) filmetako musika-bandak batetik eta bestetik *Mystic River* (2003) eta *Million Dollar Baby* (2004) filmetako kanta batzuk.

### **MIKROZINEBI**

**Lekua: Arriaga Antzokia**



**Eguna eta ordua: 28, 20.00**

Beste urteetan bezala, Zinemaldia kaleko jendearengana hurbiltzeko asmoz, MIKROZINEBIk diseinu berri eta erakargarri bat aurkezten du eta horretarako Arriaga Antzokian modulu-egitura duen karpa puzgarri handi bat jarriko da, gunee dinamikoak sortuz, forma ebolutiboak dituen eta aukeratutako inguruari ondo egokitzen zaiona. Karparen barrualdea zinema-areto txiki bat izango da eta lehiaketan dauden euskal eta espainiar film batzuk emango dira, baita informazio-film batzuk ere. Aldi berean informazio eta erakusketa gunee ere izango da.

Gainera, *Fotochroma* izeneko instalazioaz gozatu ahal izango dugu: bideo-produkzioetan, telebistan, zineman eta argazkigintzan asko erabiltzen den teknika bat da eta bisitariei argazki bat ateratzen zaie atzealde liso eta uniformeak izanik eta prozesu informatiko bat erabiliz alde aurretik hautatutako beste bat jar liteke argazki horren ordez. Emaitza ikusgarria da, argazkian ateratako pertsona hori atzealde horretan oso ondo egokitzen baita eta, adibidez, bere film gustukoaren eszena bateko protagonista bihurtu daiteke.

#### **BESTE EMANALDI LEKUAK**

**Villamonteko Kultur Aretoa (Getxo):** Atal Ofizialaren eta Infospain atalaren. programetako film euskaldun eta espainiar batzuk.

Informazio gehiagorako: ZINEBIren prentsa bulegoa  
PROYECCION T. 944790880 [proyeccion@proyeccion.tv](mailto:proyeccion@proyeccion.tv)  
Jose Gordejuela T.656703212 Ziortza Beristain T. 656703214  
Ohar hau Prentsa Bulegoaren blog-ean kontsultatu eta komentatu daiteke:  
[www.zinebiexpress.com](http://www.zinebiexpress.com)  
[www.bilbao.net](http://www.bilbao.net) eta [www.bilbao.net](http://www.bilbao.net)